

Betidanik existitu izan dira mozorroak, betidanik maskarak. Betidanik egon dira ardir mozorrotutako otsoak, beti artaldearen barruan. Artzaiari, noski, ez dio graziarik egingo pizti hori bertan egoteak baina... norbaitek jarri al du inoiz begia ardiengan?

Auskalo. Hori diote batzuek egin behar dela: artaldeaz arduratu, artzaina etsaia da eta. Gogora datorkit Orwell-en ikuilua, txerriak iraultza gidatzen. Gogora datorkit ardi diruditen batzuegan pentsatzean. Gogora, iraultza batzuen aldarrikapenak —ez nahastu ordea aldarrikapen iraultzaileekin—. Gogora, batzuen bere espezie-izanaren ezkutu lodiaren etengabeko erabilpena.

Batzutan idazleok —idazten degunok alegia— alegoria eta metaforak erabiltzen ditugu kritikengandik babestearren, mezu egokia iristea eragotziz. Gaur bertan, horrela hasi det testua, betiko artaldearen alegoria erabiliz pertsona batzuek hitzegiteko.

Baina ez det berdin jarraituko, hau errealtatearen plazaratze bat da, ez iritzi bat; eta beraz, errealtatea ulertzea da nere asmoa, askori on egingo baitio. Izan ere, asko gara gurekin erabat ez zetozen iraultzen aldarrikapenen inguruan gure borrokak eraikitza behartuak izan garenak; printzipioz, egoera honetan ez zen alde txar handirik egon beharko, dibertsitatea ona baita. Bai, dibertsitatea, aniztasuna ona da. Baina zapalkuntzak aniztasuntzat jotzea, aldiz, ez. Zapaltzaileek euren buruak aniztasuna beraren zatizat jotzea ez da ona, azken finean, ez baita aniztasuna onartzen ari garena, zapalkuntza baizik.

Hau, ziur nago, mugimendu eta borroka askotako kideei gertatu zaie euskal militantzia-eredu hegemonikoan. Esan behar da, gaitik zertxobait urrunduz, Euskal Herriko borroka, estrategia eta borroka-molde guztiak —indartasuna, indarraren erabilpen ona, barne— Ezker Abertzaleak monopolizatu dituela, sekulako baliogabetzea sortuz beste mugimenduei.

Gaira itzuliz, hortxe daude mugimendu feministako emakumeak, estatu edota aberrien aurka dauden pertsonak, antiespezistak, aniztasun sexualeko borrokaren inguruan mugitzen direnak. Eta ziur nago hauetako askok, askotan, sentitu dutela beste batzuk ez dietela haien borrokak nahierara garatzen utzi. Baina beno, hau gauza jakina da honelako pertsona gehienontzat.

Arazoa da euskal gazte mugimenduko pentsamendu atzerakoia duten gazte batzuei haien zapaltzaile izaera agerian uztearen ondorioz garatzen duten haserrea; azken finean, zapaltzaile batek bere pribilegioak mantentzearen nahia. Arazoa dator zapaltzaileek haien burua ez dutenean zapaltzailetzat ikusi nahi eta, batzutan, hala ikusita ere, zapaltzen jarraitu nahi izatean. Are gehiago, zapaltzen ez uzteagatik haserretzean. Zapaltzaile mota hauei izen bat jartzearren, ZIZ-ak deituko diet, hau da, Zapaldu *Iraultzaile* Zapaltzaileak.

Ondo ba. ZIZek askotan goraiatzen dituzte pasatako langile-altxamenduak, Sobietar Iraultza, Italiako 1960 inguruko talde autonomoak etab. Aldi berean, logikoki, hauek erabilitako borroka-moldeak onartzen dituzte, hala nola, boikota, sabotaia, indarkeria, hilketak...

Zer gertatzen da, ordea, norbaitek haiek goraiatutako altxamendu horietako boikota, sabotaia edota indarkeria erabiltzen dutenean ZIZ hauen aurka? Hauen aldetik hausnarketa, gertaeren eta egoeraren analisi bat eta, paternalismorik gabe, ekintzarekin bat datozenekin hitzegitea?

Harrigarria badirudi ere, ez. Bat-batean agertzen dira pribilegioak defendatzeko argumentuak —edo aitzakiak, hobeto esanda—: “ezin zaio zapaldu bati hori eskatu”, “horrek etsai amankomunari indarra ematen dio”, “horrelako gauzak hitzeginez konpontzen dira”, “erradikalegiak zarete” eta beste milaka aitzaki. Bai, aitzakiak.

Ez litzake gaizki egongo, euren aldetik, autokritika bat, ezta? Ondo egongo litzake haien jarrerak zalantzan jartzea, norbaitek arreta deitu badie, zerbaitegatik izango baita, ezta? Agian ez litzake gaizki etorriko, norbaitek zapaltzailea zarela esan badizu, haiei entzutea, zu, esan dizuten bezala, zapaltzailea izan zaitezkelako.

Defentsa-ekintza bat jaso eta negoziatzea eskatzeak ez al dirudi enpresari eta gobernari

kontua? Noiztik negoziatzen dira eskubideak? Noiztik justifikatu behar izan dira aldarrikapenak?

Gainera, nabarmena da nere ikuspuntutik militante hauen borroka moldea erabat zentzugabetu dela. Helburua lortzeko bitartekoak helburu bera bilakatu dira. Dirua festen bitartez lortzea da orain gaztetxe eta gune autogestionatu askoren praktika bakarra eta gainera... zelako ekintzak dira horiek, zeinetan drogen kontsumoa bultzatzen den —jakinda zein rol betetzen duten hauek langileen eginkizun erreproduktiboan— asteko tentsioa lasaitzeko eta askotan giro arrotz bat sortzen den emakume, heterosexual ez diren, drogen kontrakoak diren eta beste hamaika pertsonentzat?

Argi dago *borroka* molde hau, errotik eta segituan aldatzeko behar baten ausentziak sortu duela; eroso baitago jendea modu horretan. Baina tira, ez naiz gehiago honetaz mintzatuko, beste mila hitzeko testu bat idazteko ematen baitu.

Esan bezala, hainbat mugimendu daude izaera honetatik kanpo geratzen direnak. Ni, nahiz eta guztien aldekoa izan, batean zentratuko naiz gaurkoan: animalien askapenaren mugimenduan.

Funtsean, gizakiok animaliak erabiltzearen aurka agertzen den mugimendua (edo ideologia) da antiespezismoa, alegia, animalia erreinuaren barnean dauden espezieekiko tratuan ezberdintasunak ez egotea gizakiongandik. Izan ere, gizakiok beti jarri gera beste izaki guztien gainetik gure nahiak lortzeko —baita gizaki batzuk beste batzuen gainetik ere—, energia mugagabea dela pentsatzen duen ekonomia sistema batean murgilduta; eta beste izakien gainetik egote horretan, beste animaliak gure menpe egotea behartu ditugu historian zehar eta oraindik honela darrai egoerak. Guztiz ohikoa da animaliak jatea, lepoan soka bat lotu eta kaletik eramatea, objektu bailintzan, eta gure dibertsiorako erabiltzea.

Askok galdetuko lukete ea zein alde txar dagoen animaliak erabiltzean. Galdera ona eta beharrezkoa da. Antiespezismoa defendatzeko erabili ohi diren oinarri filosofiko nagusiak bi dira, noski, zalantzan jarri daitezkeenak:

Lehenik eta behin, teoria sensozentrista dago, zeinak muga sentimendu edo sentsazioak prozesatzeko gaitasunean jartzen duen. Animalia gehienok nerbio sistema degu, *kanpoan* gertatzen dena interpretatzeko, eta,aldi berean, animalia gehienok nerbio sistema zentrala degu, jasotako nerbio-bulkada hori interpretatzeko. Hau honela, sentsazioak prozesa ditzakegu, esan nahi duenak sentsazio horiek mingarriak, gozagarriak, beldurgarriak etab. izan daitezkeela. Honetan oinarritzen da beraz teoria sensozentrista, sentitzeko gaitasun horrek mina sor baitezake —sortzen baitu—. Hemen gizakion morala sartzen da jokoan: gizaki bati min eragingo nioke arrazoi justifikaturik gabe? Ez? Eta zergatik, orduan, bai beste animaliei? Hortan datza kontzientzi-hartze honen lehen ardatzak.

Bigarrenik, agentzia filosofikoan oinarritzea da, azken finean, enpatian. Agentzia filosofikoa izaki batek bere inguruan eragiteko duen gaitasuna da, non beldurretik ihes egitea, —komenigarritasunagatik— ekintza batzuk aurrera eramatea, afektua kasu, eta abar sartzen diren. Beste animaliak subjektu al diren eztabaida alde batera utzirik —gainera zaila da espezieagatik egitea bereizketa hau, banakoen arabera baita askotan—, animalia gehienek mina jasan eta harengandik ihes egiten dutela begi bistakoa da; ikusi besterik ez dago, esaterako, txekorrak, txerriak, antxumeak eta beste animalia askok hiltegietatik ihes egiteko egiten dituzten esfortzuak, baita besteen odola usaitzeak eragindako negarrak eta builak ere. Honek argi uzten digu animalia horiek ez dutela hil nahi, ez dutela sufritu nahi, egiten diegun guztia sentitzen dutela. Ondorioz, hona hemen bigarren galdera sorta: animalia horiek sufritu nahi ez dutela baldin badakigu, zein arrazoi dago, berekoikeri antropozentristatik haratago, haiek sufriarazteko? Eta berriro ere, zergatik sufriarazi animalia horiek eta pertsonak ez?

Animaliak erabiltzearen aurkako argumentu asko daude, baina jende asko tematzen da horiek mespretxatzen, ez baitituzte haien pribilegioak galdu nahi, besteen sufrimendua ikusi gabe xerra jaten jarraitu nahi dutelako. Mugimendu honen aurkako aitzakien artean, nola ez, ZIZek parte hartzen dute haien ideologian oinarrituz; esan izan didate, antiespezismoa borroka partziala izanda, hau da, sistema errotik aldatuko ez lukeena, ideia burgesetan oinarritzen dela eta, adibidez, klase borrokaren aurka dagoela edo hura lausotzen duela.

Mugimendu antiespezistaren lelo erabilienetako bat, ordea, “animalion eta gizakion askapena” da. Batzuei harritzen badie ere, antiespezistok beste zapalkuntza eta esplotazioen aurka baikaude eta

ondorioz, antikapitalistak garelako. Badagoela jendea ez duena klase kontzientzia eta kapitalismoan oinarritzen dena? Noski, beste mugimenduetan ez ala? Horiek ere, etsaiak dira guretzat.

Bukatzeko, ez dago, nere aburuz, argumentu pisutxurik antiespezismoari zilegitasuna kentzeko, baina, kasuak kasu, animaliak jatea oso barneratu eta onartua dago euskal gazte eta herri mugimenduan. Eta, kasuak kasu, beharrik gabe animaliak jaten dituztenak, zapaltzaileak dira.